



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua
eta Klima.**

Gipuzkoako Herritarren Batzarra
Jarraipen Batzordea
2023/01/23
Akta de la reunión

Sarrera

Naiara Goiak (Arantzazu Lab) sarrera egiten du, Batzarraren azken saioa (Batzar Nagusietan egin zena) nola joan zen aurkeztuz eta gaurko gai zerrenda azalduz.

23 pertsona gara Jarraipen Batzordean, eta 17 bat pertsona gaude hemen.

Bi hausnarketa egingo dira bileran:

- gomendioen ingurukoak;
- Jarraipen Batzordeak nola segituko duen.

Orain arte Arantxa Mendiharatek (Deliberativa) prozesua aholkatu du, eta Jarraipen Batzordearen bilerak fasilatu; orain, Gomendioen gauzatzearen jarraipena gehiago bi Labetatik (Arantzazu Lab eta Telesforo Monzón Lab) egingo da.

Gomendioen aurkezpena

Herritarren Batzarraren kideek, Andoni Paredes eta Iñaki Gartzia, 9 gomendioak aurkeztu dituzte:

1. Zerbitzu ekosistemikoak. Balio ekonomiko bat ematea. Itzulia izana jabeei.
2. Basoa I+G bidez kudeatzea. Klima aldaketari aurre egiteko.
3. Lehen sektorea estrategikoa bilakatzea. Bultzakada handia liteke sektorearentzat.
4. Kontzientziazioa umetatik hasia.
5. Gaztetzeko neurriak. Iparraldeko ereduak: Iparraldera kanpotik jende gaztea etortzen da nekazaria izateko.
6. Km0. Etiketak sortzea eta publizitate kanpainak egitea.
7. Nekazaritza ekologikoa sustatzea. Organismo bat sortuz ala zabalduz.
8. Tokiko produktuak sustatzea, hobari fiskalak egokituz.
9. Baserri misto profesionala sustatzea.

Iñaki Gartzia (Herritar batzarkidea): egiten dudana balantzea positiboa da. Nik normalean ez dut horrelako prozesuetan asko sinisten. Baina oso talde anitza izan da, eta emaitza zerteroa ateratu dira. Gaur egungo gai nagusietakoa da landu duguna. Lehengo astean albistegietan ikusi ditut landu dugun gaiarekin loturak dituzten albisteak: Aldundia espezie autoktonoekin basoak



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua
eta Klima.**

kudeatzen; ekonomia zirkularra lantzeko Estrategia Nafarroan; Valencia crear4 4 mercadillos semanales de productos locales, etc. Egin dugun lanak merezi izan du, dianan jo degu.

Andoni Paredes (Herritar batzarkidea): “ecologista de barra de bar” nintzen: nik hau egingo nuke, eta hura; hipokresia txiki horretan bizi izan naiz. Esperientzia izan da burua irekitzeko, begirada zabaltzeko eta nire hondar alea ekartzeko. Oso oso aberasgarria izan da.

Askok ikasi dut eta asko eramaten dut. Ikusi dut zenbat jende egon den prozesu honen azpian lanean, eta harro nago Batzarreko parte izan izanagatik. Berriz errepikatuko nuke zalantzarik gabe.

2 asteburutan hitzaldi pila bat jaso genituen: profesionalak, politikariak, adituak. Denbora oso labur, ordularia beti gure atzetik, baina lanketa horren ondorioz gomendioak atera eta findu ditugu.

Laburbilduz, hitz gakoak: denbora falta, jakin-min asetua, parte hartzea eta Talde-lana.

Eskerrak posible egin duzuen guztioi.

Prozesuaren hurrengo pausoak

Mikel Pagola: eskerrik asko eta zorionak 4 aste burutan egin duzuen lanagatik: informazioa jaso, deliberatu eta gomendioak egin dituzue.

Orain iritsi da Aldunditik lantzeko momentua, departamendu desberdinetik.

3 hurrengo saioak hauek dira:

- Martxoaren 14an, Gunean, 18:00etan: 9 gomendio horien inguruko erantzunak emango ditu Aldundiak. 32 herritarrek gonbidatuak dira, Jarraipen Batzordea baita ere.
- Urriaren 2023an eta urriaren 2024an: betetze mailaren jarraipena egingo da, ikusteko zer eragin izan duen eta gomendioen betetze maila zein izan den.

Azpitaldeetan lana:

1. Taldea. Yurre Peñagarikano (Landaola), Xabier Iraola (ENBA), Arantzazu Martiarena (Lurgintza), Igone Lamarain (EH Bildu)

Yurre Peñagarikano: asko inbertitu da prozesuan bertan; orain ondorioak nola gauzatzen diren da garrantzitsua. Atera diran gomendioak: sektoretik kanpoko herritarrek emandako gomendioak izateko oso sektorekoak dira gomendioak. Oso gomendio errealistak. Gustukoak izan dira. Nola segitu: gu parte hartzeko prest gaude, eta inplikatu ginateke aurrerantzean ere.

Arantzazu Martiarena: ingurumen arloa egon da lehen mailan; ekonomikoa eta ekoizpena: bigarren mailan.



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua
eta Klima.**

2. Taldea. Jesus Maria Lete (Abelur), Piter Encinas (Ekologistak martxan), Garikoitz Nazabal (EHNE), Gurutze Etxezabal (EUDEL)

Piter Encinas: orokorrean: Batzarkideek egin dutena oso ona da, oso baliagarria. Baina gauza batzuk ez ditugu ondo ikusten: basoena: nolako basoak? Pinua eta eukaliptoala ala anitzak? Guk baso anitzak eskatzen ditugu, aisialdirako ere badirenak. Pinudi gehienak ez dira egokiak aisialdirako: abandonatuta daude; malezak daude; hesituak, egoten dira, itxita. Organismo berriaren bueltan, alde gaude, tresna oso egokia izan daiteke. Proposamen oso arriskutsua: *igualar valor urbanizable con rural: puede llevar a la especulación.*

Garikoitz Nazabal: ez naiz ados Piterrek aipatu duenarekin. Erreflexio serio bat behar dugu: trantsizioaz ari garenean, materialez ari gara. Kezka edo duda baserri mixtoen inguruan: 1. Sektoretik bizitzea garantizatuta baldin bada, industria sektoreko dirusarrera horiek ez dira beharrezkoak izango. Eta bestalde, Debagoienan industria dago; Goierri ez dago hainbeste.

3. Taldea. Maite Aristegi (Etxalde), Javier Busselo (Elkarrekin Gipuzkoa), Arantxa Ariztimuño (GFA), Xabier Ariztimuño (GFA), Sebastian Zurutuza (GFA).

Iritzi desberdinak egon dira taldean edukiei dagokionean. Gomendioek adostasun maila altua dute. Metodologikoki egindakoa ospatu dute. Prozesua oso ondo joan da, eskertu izan da herritarrek lortu duten ezagutza. Inertzia batzuk apurtzeko balioko duela ikusten da. Ekosistemikoaren alde egiten den apustua da. Gaia oso transbertsala da, elkarlana eskatzen du.

Gogoeta: Jarraipen Batzordearen jarraipena.

Igone Lamarain (EH Bildu): hemen gaude prozesuan. Publikoki iritzia emateko aukera?

Naiara Goia (Arantzazulab): martxoaren 14ko bileran parte hartzeko aukera edukiko du Jarraipen Batzordeak.

Naiarak gonbidapena luzatzen du: martxoaren 14an egotea, 18:00etan.

Andoni Paredes (Herritarra): Batzarkideak ere eztabaidetan egotea eta parte hartzea, aberasgarria litzateke. Prest gaude prozesuan jarraitzeko.

Sebastian Zurutuza (GFA): Misio berrikuntza egiten du Aldundiak eta gai honekin lotura zuzena duen bat badugu elikadura jasangarriari lotutakoa. Agian Herritarren Batzarreko kideak ere hor parte hartzen ahal duzue. Ez igual guztiak gonbidatuta, baizik eta talde bat.

-Batzarra amaitutzat ematen da-